# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia | Iruñean, 1998ko uztailaren 6an | 54 ZK.

**A U R K I B I D E A**

E SAILA:
**Jabeldurak eta Mozioak:**
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aratzuriko planta fisiko-kimikoaren instalazioa atzeratzea erabaki dezan, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (4. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Osasun Sistemaren Estatutupeko Langileen Estatutu Markoari buruzko Lege proiektua atzera dezan, José Mª Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (5. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo mendi eskualdeak 2. Helburu berrian sartzea defenda dezan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (6. or.).

F SAILA:
**Galderak:**
—Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileen janzkera aldatu izanari buruzko galdera, Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina (8. or.).
—Oftalmologia zerbitzuan ortoptika ariketak eteteari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (9. or.).
—Esne alorrean ustiatzeari borondatez uzteko urte anitzeko programa bat sortzeari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (9. or.).
—Azalera handiko merkatalguneak jartzeko dekretuaren proiektuari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).
—Itoizko urtegiko espedientearen egoera juridikoaren inguruko irizpen administratiboaren eskaerari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).
—Nafarroako Plan Teknologikoak daukan babesari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).
—Vicente Berdusán artistaren artelanen erakusketari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (12. or.).
—Tafallako lurzati antolamenduaren inguruko espedienteari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (12. or.).

—Nafarroak laguntzako marko komunitarioan parte hartzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
—Agenda 2000 aplikatzearen ondorioei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
—Nafarroako Gobernuak Bruselan daukan delegazioaren jarduerari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
—Turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
—Kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlanari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
—Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitateari buruzko galdera, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (17. or.).
—Etxebizitza Planean lurzoruaren kudeaketarako aurreikusiriko sozietate berriari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
—Babes ofizialeko etxebizitzetako (BOE) iruzurraren aurka borrokatzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
—Prezio mugatuko alokairuko etxebizitzak sustatzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
—Etxebizitza alorreko araudia hobetzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
—Etxebizitza eskuratzeko laguntzen sistemari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
—Indarrean dagoen etxebizitzen ondarearen eraginkortasun sozialar buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
—Etxebizitza Planaren barruan administrazioen jarduketaren koordinazioari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (24. or.).
—Etxebizitza eskuratzeko laguntzen eraginaren ebaluazio jarraituari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
—Herritarraren interesak aintzat hartzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
—Behar handiena duten jende multzoek etxebizitza eskuratzea errazteko jarduketei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
—Etxebizitza Planaren lurzoruaren azterketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (27. or.).
—Iruñerrian lurzoruaren alorrean presakoak diren neurriei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (28. or.).
—Iruñerrian lurzoru sailkatuetan eskuhartzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (29. or.).
—Lurzoruaren ondare publikoen garapenari eta kudeaketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (30. or.).
—Etxebizitza planak lurzoruaren arloan dituen helburuak lortzeko aurreikusi diren jarduketei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (31. or.).
—Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (32. or.).
—Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (32. or.).
—Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (33. or.).
—Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (34. or.).

—Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Lurzoruaren eta Lurzati Antolamenduaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (34. or.).
—Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (35. or.).
—Ehiza debekualdiei buruzko foru agindua eta kontrapasako ehizari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (36. or.).
—Babestutako etxebizitza publikoen sustapenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (37. or.).
—Burlatako kulturetxea finantzatzeari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina (38. or.).
—Nafarroan izan den atzerriko inbertsioaren jaitsierari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina (38. or.).
—Erriberako urritu fisikoen elkarteak, Amimet-ek, eginiko salaketei buruzko galdera, Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak egina (39. or.).
—Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jarduerei dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailen betetze mailari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (39. or.).
—Landa-eskualdeetarako pizgarrien mapa finkatzeari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (40. or.).

**E saila:**
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aratzuriko planta fisiko-kimikoaren instalazioa atzeratzea erabaki dezan

*XABIER VELEZ MEDRANO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aratzuriko planta fisiko-kimikoaren instalazioa atzeratzea erabaki dezan". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Lurraldaren Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## MOZIOAREN EDUKIA

Xabier Velez Medrano, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuarekin bat, hurrengo mozioa aurkeztu du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuak, 1998ko martxoaren 23an harturiko erabakian, Nafarroako Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea onetsi zuen eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari agindu zion Hondakin Berezien Plan Kudeatzailean aurreikusitako lan-ildo eta jarduketak abian jarri eta burutzeko behar diren xedapen eta neurriak har zitzan (1998ko apirilaren 6ko 41 zk.ko NAO).

Onespen horren aurka agertu dira zenbait udal eta kontzeju, eta Parlamentuari berari bidali dizkiote udal eta kontzejuen erabakiak Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazurin gai toxiko eta arriskutsuen planta fisiko-kimikoa jartzea dela-eta. Horien kopurua garrantzizkoa denez, gaur arte jaso direnak aipatuko ditugu. Horra:

– Udalak: Adiotz, Allo, Aribe, Basaburua, Bera, Biurrun-Olkotz, Ziritza, Deikaztelu, Eneritz, Etxarri-Aranatz, Etxauri, Ezkabarte, Goizueta, Imotz, Larraun, Noain, Orkoien, Oltza Zendea, Sartaguda, Tiebas-Muru Artederreta, Gares, Ukar, Ultzama, Urdazubi, Zabaltza, Zizur Zendea, Zizur Nagusia eta Zugarramurdi.

– Kontzejuak: Aldaba, Aurizberri, Biurrun, Ibiriku, Lorka, Lotza, Muru-Azterain eta Tiebas.

Arazuri eta Ororbiako kontzejuek eta Orkoien eta Oltzako udalek errekurtso kontentzioso-administratiboa jarri dute Nafarroako Gobernuaren erabakiaren aurka. Hori dela-eta, hurrengo erabaki-proposamena egiten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du atzerapena erabaki dezan gai toxikoentzako Arazuriko planta fisiko-kimikoa ezartzeko abiarazi den xedapen eta neurri ororentzat, hainbat toki-entitatek jarri duten errekurtso kontentzioso-administratiboa erabakitzen den bitartean.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Foru Parlamentaria: Xabier Vélez Medrano

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Osasun Sistemaren Estatutupeko Langileen Estatutu Markoari buruzko Lege proiektua atzera dezan

*JOSE Mª EZPELETA MARTINEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

José Mª Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Osasun Sistemaren Estatutupeko Langileen Estatutu Markoari buruzko Lege proiektua atzera dezan”. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## MOZIOAREN EDUKIA

José Mª Ezpeleta Martínez Foru Parlamentariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldearen bozeramailea Osasun Batzordean, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak ezarri duenaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu dio Biltzarreko Mahaiari:

Oraintsu egin eta aurkeztu dute “osasun zerbitzuetako estatutupeko langileen estatutu-markorako zirriborroa”.

Estatuko Osasun Sistemaren Lurraldearteko Kontseiluan (LK) egin dute aipatu “zirriborroa”, nortzuk eta Osasun Ministerioko, Insaludeko eta autonomia erkidegoetako ordezkariek, Nafarroakoak barne.

Sindikatuek eta osasun arloko lanbidedunek gogor kritikatu dute “zirriborroa”.

Estatuko Osasun Sistemaren, eta ondorioz, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun langileen gaurko estatutu-araubidearen erreforma oso garrantzizkoa denez, osasun arloko sindikatu nagusiek Osasun Ministerioari eskatu diote eztabaida sakona egitea estatutu-markoaren lege proiektuaren inguruan, presarik gabe, zerotik hasita, Ministerioak prestatu egutegiari jaramonik egin gabe, uztaila jo baitu proiektua Parlamentura bidaltzeko garaitzat.

Horiek horrela, hurrengo erabaki-proposamena aurkeztu zaio Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du hauxe eskatu dezan: Estatuko Osasun Sistemaren Estatutupeko Langileen Estatutu Markoari buruzko Lege proiektua Parlamentura bidaltzea atzera dezatela.

Nafarroako Gobernuak bere aldezpena kenduko dio “osasun zerbitzuetako estatutupeko langileen estatutu-markorako zirriborroa”ri, eta ondorioz, hori Espainiako Parlamentuan tramitatzeari, Osasun Kontseilaria Nafarroako Parlamentura agertu eta gerta daitekeen eztabaida eta erabakia egin arte.

Iruñean, 1998ko ekainaren 26an

Foru Parlamentaria: José Mª Ezpeleta Martínez

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo mendi eskualdeak 2. Helburu berrian sartzea defenda dezan

*«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA*

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo mendi eskualdeak 2. Helburu berrian sartzea defenda dezan”. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. eta 193. artikuluek xedatu dutenaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

CEDERNA-GARALUR elkartea osatzen duten toki entitateak eta eragile ekonomiko eta sozialak batzar nagusian bildu ziren Agoitzen, 1998ko ekainaren 13an. Erabakia hartu zuten Nafarroako Gobernuari jakinarazpena bidaltzea, hauxe azalduz:

Europako politika eta egitura fondoen ekarpenak, ekintza programen eta Europako ekimenen bitartez, berebiziko garrantzia duen tresna izan direla azken urteotan, eta halaxe jarraitzen dutela, Nafarroako mendialdearen gainbeherari aurre egin eta haren garapena bultzatzeko.

Tokian tokikoek aipatu laguntzari eman dioten erantzuna oso garrantzizkoa izan dela, laguntzek hainbat arlotan izan duten eraginak hala erakusten baitu, esate baterako, inbertsio pribatuan, bertako baliabideak aprobetxatuz jardueraren anizkotzearen bultzatzean, tokian tokikoek gero eta gehiago partehartzea beraien lurraldearen etorkizuna erabakitzen eta eskualde mailako lankidetzan.

Hori gora behera, egun 2 eta 5b helburuetan kokatzen diren eskualdeek osatzen duten Nafarroako mendialdearen egoera ekonomiko eta sozialak garrantzizko desorekak erakusten ditu eta berebiziko ahalegin etengabe eta ausarta egin behar da hurrengo urteetan.

Egoera horretaz jabeturik, kezka bizia dagoela hurrengo hilabeteetan burutuko den eskualdetze berria dela-eta, 2000-2006 aldirako egingo den egitura fondoen erreformaren baitan. Izan ere, Nafarroako mendialdea 2. helburu berrian sartzeak eragin handia izanen du aipatu eskualdeen geroa mehatxatzen duten desorekak zuzentzeko lan-ildoan.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuari hauxe eskatu zioten:

1.- Herrialdeko Administrazioa egoeraz jabetuta dagoenez, egoera gainditzeko asmoz eta kontuan izanik eskualdetze berria hein handi batean era negoziatuan erabakiko dela Estatu batasunkide bakoitzaren baitan, Nafarroako Gobernuak tinko defenda dezala egungo eskualdeak 2. helburu berrian sartzea eta beharrezko baliabideak eskuratzea gure Foru Komunitateko ekonomi eta gizarte-kohesioari heltzeko.

2.- Aurrekoarekin batera, Nafarroako landainguruko eskualdeetatik horietako bakoitzaren garapen eta etorkizunerako plangintzan egiten ari diren ahaleginari laguntza ematearren, herrialde mailatik erraz dezatela eskualde mailako lana eta beharrezko esparrua ezar dezatela Nafarroako landa-ingurunearen garapenerako, Nafarroako Gobernuaren alor-politikak elkarri egokitzeko moduan, Nafarroako eskualdeen beharrizan bereziak eta elkarrekiko eraginak kontuan hartuta, eta toki eta herrialde mailetako lankidetza eta erantzukizun amankomuna erraztuta.

Azkenik, CEDERNA-GARALUR elkarteak lankidetza eskaini zion Nafarroako Gobernuari gai hauetako lana garatzeko.

Horiek horrela, hurrengo erabaki-proposamena aurkeztu zaio Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du gogor defenda dezan egun 2 eta 5b helburuetan dauden mendi eskualdeak 2. helburu berrian sartzea eta beharrezko baliabideak eskuratzea gure Foru Komunitateko ekonomi eta gizarte-kohesioari heltzeko.

2.- Era berean, Nafarroako Gobernua premiatu da eskualde mailako lana erraz dezan eta beharrezko esparrua ezar dezan Nafarroako Gobernuaren alor-politikak elkarri egokitzeko moduan, halako moldez non mendi eskualdeen beharrizan bereziei arreta eginen zaien eta haien berezko garapena bultzatuko den.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

**F saila:**
**GALDERAK**

# Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileen janzkera aldatu izanari buruzko galdera

*Mª ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileen janzkera aldatu izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

María Rosario Villanueva Iturralde, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatzizko erantzuna eskatuz:

Ondo nabaria da Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileen laneko uniformeak aldatu egin dituztela.

Hala ere, ez dira jakin aipatu jantzi-aldaketarako arrazoiak, ezta horren kontrataziorako jarraitu den administrazio-prozedura ere. Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Nork eta nola hartu du Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileen jantziak aldatzeko erabakia?

2.- Nork eta nola aukeratu du jantzien diseinu berria?

3.- Noiz deitu zen aipatu jantziak kontratatzeko lehiaketa?

4.- Zer enpresa eta zer proposamen ekonomikorekin aurkeztu zen lehiaketara?

5.- Ekonomikoez bestelako zer irizpide erabili zen esleipenerako?

6.- Zer enpresari esleitu zitzaion, zenbatean eta zenbat puntu atera zituen?

7.- Zer arrazoi dago jantzi berriek ehun-enpresaren erregelamenduzko etiketarik ez eramateko, ezta horrelako produktuek behar dituzten gainerako daturik ere?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 18an

Foru Parlamentaria: Mª Rosario Villanueva Iturralde

# Oftalmologia zerbitzuan ortoptika ariketak eteteari buruzko galdera

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Oftalmologia zerbitzuan ortoptika ariketak eteteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako "Nueva Izquierda"ren Foru Parlamentariak, Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Bada denbora kendu egin dituztela ortoptika-ariketak direlakoak Nafarroako Ospitaleko Oftalmologia Zerbitzuan. Gaur egun ez dira egiten, eta zerbitzu pribatuetara bidaltzen dituzte ariketa horiek behar dituztenak.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

Noiztik dagoen etenda ortoptika-ariketak egiteko zerbitzua Nafarroako Ospitalean eta zeintzuk diren etetearen arrazoiak, eta baita etetea iraunkorra izanen den ere.

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

---

# Esne alorrean ustiatzeari borondatez uzteko urte anitzeko programa bat sortzeari buruzko galdera

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak esne alorrean ustiatzeari borondatez uzteko urte anitzeko programa bat sortzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Sakoneko berregituraketa izan du esnearen alorrak azken urteotan, baina ez da nahikoa oraindik, gure ustiategien neurri ertaina ez delako iristen Europako batez bestekora.

Gure esne-ustiategien neurririk hoberena lortzeko, egoki litzateke Foru Administrazioak ustiatzeari borondatez uzteko programa urte anitzeko bat sortzea, utzitako kopuru horiek abeltzain gazteen artean banatzeko.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Foru Administrazioak laster ekin behar al dio programa urte anitzeko bati, ustiatzeari borondatez uzteko gure Komunitatean?

2.- Zenbat tonelada erosteko prest egonen litzateke Administrazioa urtero?

3.- Zenbat urtez luzatuko litzateke plan hori?

4.- Zenbat baliabide ekonomiko erabiliko litzateke urtero?

5.- Nola banatuko lirateke erositako kopuruak?

6.- Zein irizpide erabiliko litzateke erosteko orduan?

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

# Azalera handiko merkatalguneak jartzeko dekretuaren proiektuari buruzko galdera

*JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak azalera handiko merkatalguneak jartzeko dekretuaren proiektuari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Juan Cruz Alli Arangurenek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbarak Nafarroako Gobernuari eskatu omen dio azalera handiko merkatalguneentzako lizentziarik ez ematea horiek ezartzeko prozedura erabaki bitartean.

Dirudienez, Nafarroako Gobernuak dekretu-proiektu bat helarazi omen dio aipatu Ganbarari azalera handiko merkatalguneak ezartzeari buruz. Horregatik, hauxe jakin nahi dut:

1.- Azalera handiko merkatalguneak ezartzeko dekretu-proiektua martxan al da? Baiezkoan, norantz joango litzateke horien erregulazioa?

2.- Zer irizpide du Gobernuak azalera handiko merkatalguneak ezartzeari buruz?

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

## Itoizko urtegiko espedientearen egoera juridikoaren inguruko irizpen administratiboaren eskaerari buruzko galdera

*JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Itoizko urtegiko espedientearen egoera juridikoaren inguruko irizpen administratiboaren eskaerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Juan Cruz Alli Arangurenek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gobernuko Lehendakariak emandako informazioaren arabera, hauxe onetsi omen du Nafarroako Gobernuak: irizpen administratiboa eskatzea Itoizko urtegiaren espedientearen egoera juridikoari buruz.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zein da aipatu erabakiaren hitzez hitzeko edukia?

2.- Hala bada, zein da kontratuaren objektua eta, zehazki, zer lanbide-jarduketa hartzen du kontratazioak bere baitan?

3.- Kontratuaren objektuari gagozkiolarik, Itoizko proiektuaren edo horrekin loturiko jarduketen zer espediente administratibo edo juridiko hartuko du?

4.- Zeintzuk dira kontratuaren betetze-epea eta iraunaldia?

5.- Zeintzuk dira horren baldintza orokorrak eta baldintza bereziak?

6.- Zein da kontrataziorako administrazio-organoa?

7.- Zein da kontratuaren izenpetze-data?

8.- Zein da kontratatzeko prozedura?

9.- Zeintzuk dira kontratazioaren arrazoiak?

10.- Zer kontusailen pentzutan ordainduko da?

11.- Zenbatean hitzartu edo balioetsi da txostenaren kostua?

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

---

## Nafarroako Plan Teknologikoak daukan babesari buruzko galdera

*JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Plan Teknologikoak daukan babesari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Juan Cruz Alli Arangurenek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Duela egun batzuk, Nafarroako Plan Tekonologikoan ari diren lantaldeak bildu ziren aipatu planaren gauzatze-maila baloratzeko. Bilera horre-

tan, Industri Kontseilariak hitz eman zuen Nafarroako Plan Tekonologikoak aurreikusitako jarduketak babesteko. Horren aurrean, hauxe jakin nahi da:

1.- Nola zehaztuko da Nafarroako Plan Tekonologikoa Nafarroako Gobernuaren aldetik?

2.- Noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak garatuko dituela plan tekonologikoari babesa emateko jarduketak?

3.- Zenbat diru erabiliko da plan tekonologikoari babesa emateko, eta zer aurrekontu-kontusailetik aterako da?

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

---

## Vicente Berdusán artistaren artelanen erakusketari buruzko galdera

*BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Vicente Berdusán artistaren artelanen erakusketari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Vicente Berdusán artistaren lanak izan dira ikusgai Nafarroako Museoan. Hurrengoak jakin nahi ditugu horri buruz:

• Erakusketaren guztizko kostua.

• Erakutsi diren lanen kopurua.

• Erakusketaren helburuak.

• Aipatu artistaren obrarik konpondu al da Nafarroako diru publikoen pentzutan?

Baiezkoan:

– Konponketaren helburuak eta justifikazioa.

– Zenbat obra.

– Kostua.

– Zer kontusailen kontura.

Iruñean, 1998ko ekainaren 23an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

---

## Tafallako lurzati antolamenduaren inguruko espedienteari buruzko galdera

*BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Tafallako lurzati antolamenduaren inguruko espedienteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Tafallako Udalak, 1997ko apirilaren 24an egindako osoko bilkuran, onetsi zuen udal horretako herri lurren lurzati kontzentrazioa. Zegokion espedientea bidali zioten Nafarroako Gobernuko Nekazaritza Departamentuari (sarrera-erregistroko 591 zenbakia).

Gaiak garrantzia handia duenez eta auzo askoren artean kezka sortu duenez, hurrengoen berri izan nahi dugu:

• Espedientea nola dagoen Nekazaritza Departamentuan, izapidatzea eta aurreikusitako epeak.

• Aipatu Departamentuaren balorazioa, Tafallako Udalaren eskariak betetzen ote dituen Nekazaritza Azpiegituren Erreformari buruzko 18/1994 Legeak ezarritako baldintzak. Ezezkoan, azalpena, zehaztasun eta guzti.

Iruñean, 1998ko ekainaren 23an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## Nafarroak laguntzako marko komunitarioan parte hartzeari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroak laguntzako marko komunitarioan parte hartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak ere finantzatzen ditu Europako ekimenetara eta programetara biltzen diren hainbat proiektu.

Europako Batasuneko Laguntza Esparruak (MCA), 1994 eta 1999 urteen bitartean garatzeko denak, bere baitan biltzen ditu eskualdeetan aritzeko diren Europako ekimenak, Batzordearen Liburu Berdea izenekoak aurreikusten dituen partehartze-ardatz nagusien arabera.

Ekimen horien aplikazioa arautzeko, egitura-fondoen erregelamenduak eta Batzordearen jakinarazpenak erabiltzen dira, ekintza-programetarako edo dirulaguntza orokorrentzako orientabideak ezarri baitituzte.

Nafarroako Komunitateak Europako Batasuneko Laguntza-Esparruan (1994-1999) duen partehartzea dela-eta, hurrengo galderei erantzutea eskatzen dut:

1. Zeintzuk dira eskuhartzeko ardatz nagusiak eta zeintzuk dira ardatz bakoitzari dagozkion Europako ekinbideen izenak, eta horietako zeinetan parte hartzen du Nafarroako Komunitateak, Nafarroako Gobernuaren bitartez?

2.- Zeintzuk dira eskuhartzeko ardatz nagusiak eta zeintzuk dira ardatz bakoitzari dagozkion Europako ekinbideen izenak, eta horietako zeinetan parte hartzen du Nafarroako Komunitateak, Nafarroako Komunitateko administrazioen menpeko bestelako organismo, elkarte, erakunde edo enpresa publikoren bitartez?

3.- Zein da ekimen bakoitzaren eta ekimenak aplikatzeko ekintza-programen benetako iraunaldia? Zenbat jotzen dute horietako bakoitzaren aurrekontu burutuak eta burutugabeak, guztira, eta zenbat finantzatu da edo finantzatzeko aurreikuspena dago bai Europako Fondoen kontura, bai Nafarroako Aurrekontu Orokorren kontura?

Iruñean, 1998ko ekainaren 23an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Agenda 2000 aplikatzearen ondorioei buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Agenda 2000 aplikatzearen ondorioei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Europako egitura fondoak dira Europako Elkarteak izan dituen tresna nagusietako bat ekonomi eta gizarte kohesioa indartu eta herrialdeen arteko aldeak gutxitzeko, herrialdeetan garapen-ekintzak finantzatzearen bitartez.

Urte bete da Europako Batzordeak Agenda 2000 izeneko jakinarazpenaren berri eman zuela, egitura fondoen lehentasunezko helburuak gutxitzea proposatuz.

Egindako aurreikuspenen arabera, egunotan finkatuko omen dira etorkizuneko erregelamendu europarretan jasoko diren hautatzeko irizpideak.

Agenda 2000 Nafarroan ezartzeak izanen dituen eraginak direla-eta, hurrengo galderei erantzutea nahi da:

1. Zer aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak Agenda 2000 gure Komunitatean ezartzeak izan ditzakeen ondorioei buruz?

2.- Zer aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak hautatzeko irizpideen finkapenari buruz, horiek eta bere bilakaera jarraitzeko asmoz?

3.- Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat egin al du Europako fondoek gure Komunitateko ekonomi eta gizarte kohesioari egiten dioten ekarpena sendotzeko?

4.- Zer proposamen egin du Nafarroako Gobernuak autonomi erkidegoek Ekonomi Ministerioarekin egin dituzten gai honi buruzko bileretan? Eta Europako organismo eta erakundeen aurrean?

5.- Zer aurreikuspen du Ekonomi eta Ogasun Ministerioak estatu-mailako eskualdetzeari buruz?

Iruñean, 1998ko ekainaren 23an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Nafarroako Gobernuak Bruselan daukan delegazioaren jarduerari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak Bruselan daukan delegazioaren jarduerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak egitura berria onetsi du Ekonomi eta Ogasun Departamenturako, eta unitate organiko bakarrean sartu zuen Kanpo Ekintza, aurretik zeuden bi zerbitzuak Kanpo Ekintzarako Zerbitzu berrian bilduz. Zerbitzu horri atxiki zion Bruselako ordezkaritza.

Hauxe esan zuen Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak aldaketa horiek zirela-eta: “Diren baliabideak hobeto koordinatzea eta baliatzea besterik ez da bilatzen, eta baita Bruselako delegazioaren jarduketak hobeto definitzea Kanpo Ekintzarako Zerbitzuarekin lankidetza eta laguntza emateko”.

Bruselako delegazioaren kudeaketa Sodexna (Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra) sozietate publikoaren bidez egiten da.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen delegazioaren jarduera dela-eta, hurrengo galderei erantzutea nahi dut:

1. Nafarroako Gobernuak zer jardueretarako erabili du aipatu delegazioak bildu eta bidali dion informazioa? Nafarroako Gobernuko zein departamenturi eragiten dio?

2. Europako Batasuneko zer erakunde, organismo, batzorde edo bestelako organotan du partehartze zuzena Bruselako delagazioak, eta zer ordezkaritzarekin?

3. Batzordeko zuzendaritza nagusien egituraren barruan: zer gairi egiten dio etengabeko jarraipena Bruselako delegazioak? Bruselako delegazioak definitu al du gure Komunitatearendako garrantzi berezia duten gaien zerrenda?

4. Zer jarraipen- eta laguntza-jarduketa burutu du aipatu delegazioak Nafarroatik Europako prestakuntza lortzeko aurkeztu diren espediente eta planak izapidatzean?

5. Nafarroako Gobernuaren Bruselako delegazioak zenbat mintegi, hitzaldi edo topaketa egin ditu agintari edo funtzionarioen, orobat Nafarroako eragile ekonomiko eta sozialen ordezkarien eta Europako funtzionarioen artean, departamentuei edota aipatu eragile ekonomiko eta sozialei interesatzen zitzaizkien gaiei buruz? Noiz eta zer gairi buruz?

6. Delegazioaren egitura berria eratu denetik: zenbat bekadun ari da bertan lanean Europako Batasuneko gaiei buruzko prestakuntzan?

7. Zein izan da delegazioaren urteko kostua, berriz eratu zenetik? Zein izan da kostuaren banaketa, hurrengo kontzeptuei bagagozkie: langilegastuak, alokairu-gastuak, gastu arrunta edo delegazioaren zereginei dagokiena?

8. Zein izan da delegazio horri atxikitako langileen ordainsarien urteko kostua, berriz eratu zenetik? Hauek eskatzen dira: lanpostuaren izena, bakoitzaren urteko ordainketa gordina eta baita hurrengo ordainketa-kontzeptuen banaketa ere: Gizarte Segurantza, kalteordainak eta bestelako ordainketak.

Iruñean, 1998ko ekainaren 23an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, Ingurugiro Zuzendari Nagusiak 1997ko ekainaren 12an eman zuen 1810/1997 ebazpenaren bidez onetsi zuen Nafarroako kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlana egiteko kontratazio espedientea.

Era berean, 1997an ere, Nafarroako turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioa egiteko laguntza teknikoaren kontratua egin zuten.

Nafarroako turismo kanpamentuetako arrisku eta larrialdien azterlan-inbentarioa dela-eta, hurrengo galderei erantzutea eskatzen dut:

1. Zer entitate, erakunde, enpresa edo organizaziori esleitu zitzaion esleipena? Zenbatean? Noiz izenpetu zuten kontratua? Noiz bukatzen zen entregatzeko epea eta noiz eman zuten azterlan-inbentarioa?

2. Zeintzuk dira esleitutako azterlan-inbentarioaren ondorioak? Egoera hobe dezaketen jarduketa praktikorik ateratzen al da horretatik? Zeintzuk?

3. Zer harreman du azterlan-inbentario honek Ingurugiro Zuzendari Nagusiak emandako 1810/1997 ebazpenaren bidez onetsi zen lehiaketaren ondorioz esleitu zen Nafarroako kanpatzeinstalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlanarekin?

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlanari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlanari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, Ingurugiro Zuzendari Nagusiak 1997ko ekainaren 12an eman zuen 1810/1997 ebazpenaren

bidez onetsi zuen Nafarroako kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlana egiteko kontratazio espedientea.

Bost hilabeteko epea ezarri zuten azterlana burutzeko eta lehiaketaren bidez esleitzea aurreikusi zuten, lizitazio-prezioa 8.504.192 pezeta zela.

Nafarroako kanpatzeko instalazioetako uholde arriskuen inguruko azterlana dela-eta, hurrengo galderei erantzutea eskatzen dut:

1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egina al zuen, 1810/1997 ebazpenaren data baino lehen, arrisku horien inguruko bestelako azterlanik? Baiezkoan: ezarri al zuen azterlanak lehen diagnostikorik kanpatzeko instalazioek uholde-arriskuaren aurrean zuten egoeraz? Zein zen diagnostiko hori?

2. Zer entitate, erakunde, enpresa edo organizaziori esleitu zitzaion esleipena? Zenbatean? Noiz izenpetu zuten kontratua? Noiz bukatzen zen entregatzeko epea eta noiz eman zuten azterlana?

3. Zeintzuk dira 1810/1997 ebazpenak aurreikusi lehiaketaren bidez esleitutako azterlanaren ondorioak? Egoera hobe dezaketen jarduketa praktikorik ateratzen al da horretatik? Zeintzuk?

Iruñean, 1998ko ekainaren 22an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

## Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitateari buruzko galdera

*Mª ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitateari buruz egindako galderaren bideratzea onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Mª Isabel Arboniés Bermejok, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Osasun Bozeramaileak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitatea 1996ko abenduan hasi zen lanean, Oinarrizko Osasun Laguntzaren menpean. Langile hauek zituen: ginekologoa, emagina, erizain/hezitzailea eta administrari laguntzailea.

Barañaingo biztanleek hainbeste eskatu duten zerbitzuak oso harrera ona izan du eta sei hilabete itxaron behar dira egun kontsulta izateko.

Ginekologoaren ordutegiaren doikuntzak direla-eta, maiatzetik aurrera, informazio eta hezkuntza alorrean ari dira garatzen Gazte Programa, baina ez arreta ginekologikoan.

Aipatu unitateak birrantolatu zituen 16/97 Foru Dekretuak Ermitagaña-Barañain izeneko unitatean sartu zuen aipatu unitatea. Barañaingo udala erabaki horren kontra azaldu zen hainbat moziotan, baita laguntza espezializatuan sartzekoaren kontra ere. Mozioen ondorioz, Alkateak elkarrizketa izan zuen Osasun Kontseilariarekin eta Udaleko Osoko Bilkuraren aurrean adierazi zuen kontseilariak baimena eman ziola esateko Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitatea herri horretan geratuko zela, betiko.

Aipatu Foru Dekretua aplikatuz, Emakumearentzako Laguntza Unitatea Laguntza Espezializatuaren menpe izanen da, datorren uztailaren batetik aitzina.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1) Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitatea Barañainen geratuko al da, betiko?

2) Zein izango litzateke Barañainen kokatuko litzatekeen Emakumearentzako Laguntza Unitatearen plantila?

3) Beharrezko baliabideak jarriko al dira Gazte programa aurrera eraman ahal izateko Barañainen?

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Foru Parlamentaria: Mª Isabel Arboniés Bermejo

## Etxebizitza Planean lurzoruaren kudeaketarako aurreikusiriko sozietate berriari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Etxebizitza Planean lurzoruaren kudeaketarako aurreikusiriko sozietate berriari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Hauxe da aipatu planak dituen lehentasunezko helburuetako bat: “etxebizitza alorreko zeregin berriak sortzeko arreta”, eta lurra kudeatzeko sozietatea sortzea gomendatzen da, non gehiengoaren kontrola, %51 baino gehiago, alegia, administrazio publikoen esku izanen den. Aipatu sozietatearen zeregintzat hartu dira lurzoru-azterketak egitea, lurrak erosi, kudeatu, urbanizatu eta saltzea gero, eta antzekoak ere.

Etxebizitza Planean lurzoruaren kudeaketarako aurreikusiriko sozietate berria dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak lurzoruaren kudeaketarako sozietate berriak bereganatu beharko dituen eginkizunak zehazteko?

2. Idazketaren zer fasetan dago aipatu sozietatearen nortasunaren inguruko aukerei buruzko azterketa teknikoa (%100 publikoa, publikoa gehienbat, %51... e.a.)?

3. Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak aipatu sozietatea jardunean hasiko dela?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Babes ofizialeko etxebizitzetako (BOE) iruzurraren aurka borrokatzeari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Babes ofizialeko etxebizitzetako (BOE) iruzurraren aurka borrokatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Aipatu planaren lehentasunezko helburuetako batek, tresnazko jardute-ildoen baitan, hurrengorantz abiatu behar zuen: “etxebizitzak baimendu gabeko erabileretan ez erabiltzera eta etxebizitzengatiko gainprezioa jasotzeari esestera”, laguntza jaso duten etxebizitzak ohiko bizitoki iraunkorrerako erabili behar direlako, eta ez bigarren bizilekurako, are gutxiago hutsik edukitzeko.

Babes ofizialeko etxebizitzetako (BOE) iruzurraren aurka borrokatzea dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, laguntzak eman aurretiko kontrola hobetzeko, eskatzaileak aurretik etxebizitzarik ba ote duen edo, hala bada, bestelako etxebizitzarik erabiltzen duen igartzearren?

2. Nafarroako Gobernuak egin al du edo garatzeko asmoa du kanpainaren bat iruzurrari antzemateko, zerga-dirusarrerei buruzko informazioa edo legez eskura daitekeen beste edozein erabiliz (etxebizitzak erabiltzen egiten den ohiko gastua)?

3. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, dirusarrerak ezkutatzea galarazteko, diruz lagundutako etxebizitzak erosteko laguntzak eskuratzeko garaian?

4. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, gainprezioak jasotzea esesteko, babes ofizialeko etxebizitzen eskualdeketetan eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubideak erabiliz?

5. Nafarroako Gobernuak aztertu al du edo aztertzeko asmorik al du penalizazio-sistemaren bat erabiltzea, araupetutako etxebizitzen salmentan gainprezioak jasotzen dituzten sustatzaileei ezartzeko? Baiezkoan: zer euskarri juridiko erabili da horretarako? Noizko aurreikusi da martxan jartzea?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Prezio mugatuko alokairuko etxebizitzak sustatzeari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Prezio mugatuko alokairuko etxebizitzak sustatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Aipatu planaren lehentasunezko helburuetako baten norabidea hauxe izan zen: “horretarako baliabide ekonomikorik ez dutenentzako alokairuko etxebizitzen eskari zenbatetsiaren %100 asetzea”. Eskari hori Iruñean eta Iruñerrian kokatzen omen da, gehienbat.

Prezio mugatuko alokairuko etxebizitzak sustatzea dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak hobaridun mailegu kualifikatuak hobetzeko?

2. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) sustatzen dituztenentzako dirulaguntzak hobetzeko?

3. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak araubide bereziko etxebizitzen errentarientzako dirulaguntzak hobetzeko, haien gorabehera ekonomiko eta familiazkoen arabera, hasierako aldiko ordainketa erraztearren eta berankeria-arriskua gutxitzearren?

4. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak alokairuaren malgutasun handiagoa eta txandaketa ona erdiestearren, etxebizitza berean egoteko urte kopurua erregulatuz?

5. Lur-lehiaketaren batean aldatu al dira inoiz indarrean dauden balorazioak, Etxebizitza Planak alokairuko etxebizitzetarako aurreikusi dituen helburuak erdiestearren?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Etxebizitza alorreko araudia hobetzeari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Etxebizitza alorreko araudia hobetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Aipatu planaren lehentasunezko helburuetako batek, tresnazko jardute-ildoen baitan, hurrengorantz abiatu behar zuen: “administrazio-arau eta prozeduren hobetzerantz”.

Etxebizitza alorreko araudia hobetzea delaeta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak indarreko arauak biltzeko (foru, estatu eta Europa mailan), eraikuntzari, etxebizitzari, erabiltzaileen harreman eta eskubideei eta sustapenari buruz?

2. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak egungo arauak aldatu eta hobekuntzak sartzeko diseinuan eta bizigarritasunean, izapidatzean, oztopo fisiko eta zentzumenezkoetan, erabiltzaileen babesean eta eraikuntzaren kalitatean?

3. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak ezar daitezkeen arauen kopurua murriztu eta prozedurak arintzeko, argitasun handiagoa eginez?

4. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak arauak ezagutarazteko etxebizitzak sustatzen zerikusia dutenen artean?

5. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, gertatu diren gizarte-aldaketekin bat datozen arkitektura-irtenbide berriak bereganatzeko gai diren arau batzuk egiteko, saiobidezko etxebizitzen prototipoak egitea, kasu?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Etxebizitza eskuratzeko laguntzen sistemari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Etxebizitza eskuratzeko laguntzen sistemari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Aipatu planaren lehentasunezko helburuetako batek hurrengo norabidea hartu zuen: "etxebizitza eskuratzea sustatu eta bultzatzea".

Etxebizitzarako laguntzen sistemaren definizio berria dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, zuzeneko laguntzen sistema, alegia, dirulaguntzak eta maileguen subsidiazioak, oro har, berriz definitzeko, lehenengo etxebizitza erosteko erabil daitezen?

2. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, familiaren dirusarren bestelako ponderazioa egiteko, etxebizitza eraikitzen den eremu geografikoaren arabera? eta familia-unitatearen kideen kopuru handiagoaren arabera? eta 65 urtetik goitikoendako?

3. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak maileguen subsidiazioa hobetzeko, halako moldez non mailegu hartzen duenak ahalegin handiena egin behar duen urteetan kontzentratuko den?

4. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, etxebizitzak duen azalera guztiaren araberako dirulaguntzak emateko erosketan?

5. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, epeak eta amortizazio sistemak kreditu-sistemaren bilakaerari egokitzeko, hau da, egungo tasei gehitu ahal izateko amortizazio-aldi ezberdineko beste batzuk edo interes aldagarrikoak?

6. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak babes ofizialeko etxebizitzen (BOE) prezioaren hobekuntza ahalbidetzearren?

7. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, dirulaguntza osoa batera ordaintzeko, erosleak gehien behar duenean eskuratu ahal izateko moduan?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Indarrean dagoen etxebizitzen ondarearen eraginkortasun sozialar buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak indarrean dagoen etxebizitzen ondarearen eraginkortasun sozialar buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Aipatu planaren lehentasunezko helburuetako batek hurrengo norabidea hartu zuen: "indarrean dagoen etxebizitzen ondarearen eraginkortasun soziala handitzea". Horretarako, Etxebizitza Planak 8000 zaharberritze-jarduketa sustatzea planteatu du irauten duen aldirako, hau da, urteko 2000 jarduketa inguru.

Hona jarri zuten helburua: zaharberritze-eskari zenbatetsiaren %75a betetzea, eta eskariaren %100 betetzea jarduteko lehentasuna duten eremuetan.

Indarrean dagoen etxebizitzen ondarearen eraginkortasun soziala dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Zer eremu jo dira zaharberritzeko lehentasunezko barruti, Nafarroako Gobernuaren laguntzak eta jarduketak areagotzeko?

2. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zaharberritzeko lehentasunezko barrutiak bultzatzeko, hirigintza-plangintza bereziak eginez, udal arauak bertan sar daitezen?

3. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zaharberritze-jarduketen profesionalizazioa bultzatzearren, eskualde zabalak, auzoak edo eraikin osoak har ditzaten?

4. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zaharberritze eragiketen araubide ekonomiko eta finantzarioa babes ofizialeko etxebizitzen (BOE) araubidearekin parekatzeko?

5. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zaharberritzeko aurrekontuak ahalik eta ondoen erabil daitezen ohiko bizileku iraunkorretan? Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, zaharberritzeko maileguak babes ofizialeko etxebizitzetarakoak bezala subsidiatzeko?

6. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zaharberritzeko obrei dirulaguntza emateko hurrengoen arabera: eraikinen aintzinatasuna, erabiltzaileen ekonomi eta famili egoera?

7. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak egun diren eskualdeko zaharberritze-bulegoen lana bultzatzeko? Eta Iruña eta Zangoza merindadeetan eskualdeko bi zaharberritze-bulego berri jartzeko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Etxebizitza Planaren barruan administrazioen jarduketaren koordinazioari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Etxebizitza Planaren barruan administrazioen jarduketaren koordinazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Aipatu planaren lehentasunezko helburuetako batek, tresnazko jardute-ildoen baitan, hurrengorantz abiatu behar zuen: “beste erakunde batzuekin egiten diren jarduketen koordinazioa hobetzea, administrazio publikoen artekoa, batez ere”.

Etxebizitza Planaren barruan administrazioen jarduketaren koordinazioa dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak toki administrazioekin udal eta foru etxebizitza publikoak sustatzeko bakoitzaren lurralde-eremuan?

2. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, berariazko udal planeamendua duten aldeetan, zaharberritzeko lehentasunezko barrutiak ezartzeko jarduketen programazioarekin eta toki entitateen eta Nafarroako Gobernuaren finantzaketarekin?

3. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak toki entitateekin, zuzenean edo VINSAren bitartez, etxebizitzak eraikitzeko lurren udal ondareak kudeatu eta sortzeko?

4. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Estatuko Administrazioarekin edo Estatuko ente edo enpresekin, etxebizitzetarako erabil daitekeen estatu-ondarea kudeatu, eta hala bada, erosteko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Etxebizitza eskuratzeko laguntzen eraginaren ebaluazio jarraituari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Etxebizitza eskuratzeko laguntzen eraginaren ebaluazio jarraituari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Aipatu planaren lehentasunezko helburuetako batek hurrengo norabidea hartu zuen: etxebizitza eskuratzeari sustapena eta laguntza ematea.

Etxebizitza eskuratzeko laguntzen eraginaren ebaluazio jarraitua dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak laguntzek eskaintzan eta eskarian duten eraginaren ebaluazio jarraitua aurten garatzeko, eskura diren aurrekontu-baliabideen eraginkortasunik handiena lortzearren?

2.- Zer ondorio atera daiteke aipatu ebaluaziotik? Nafarroako Gobernuak ekimenen bat aurreikusi al du aipatu ebaluazioaren konklusioen ondorioz?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

# Herritarraren interesak aintzat hartzeari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak herritarraren interesak aintzat hartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen

zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Aipatu planaren lehentasunezko helburuetako batek hurrengo norabidea hartu zuen: “herritarren gogobetetzea hobetzea”.

Herritarraren interesak aintzat hartzea delaeta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak herritarrari laguntzeko jarduerak taxutzeko, dituen eskubide eta betebeharrei eta eraikuntzari buruzko informazioa ematea xede dutenak batez ere, orobat galdera eta kexuei arreta egitea?

2. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, zuzeneko zerbitzuak deskontzentratu eta eskualdeko zaharberritze-bulegoen jarduketa bultzatzeko, bizigarritasun-zeduletan, eta abar? Eta aipatu bulegoen arreta Nafarroako gainerako tokietara hedatzeko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

## Behar handiena duten jende multzoek etxebizitza eskuratzea errazteko jarduketei buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak behar handiena duten jende multzoek etxebizitza eskuratzea errazteko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Aipatu planaren lehentasunezko helburuetako batek hurrengo norabidea hartu zuen: “etxebizitzaren premia izanik, nahikoa baliabide ekonomikorik ez izateagatik etxebizitza eskuratu ezinik dabiltzanentzako laguntza”. 9.500eko eskaria jarri zuen Etxebizitza Planak hurrengo lau urteetarako, horietarik %60, 35 urte baino gutxiago zuten gazteentzat eta %10etik hurbil zegoen portzentaia 60 urtetik goitikoentzat.

Behar handiena duten jende multzoek etxebizitza eskuratzea errazteko jarduketak direla-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak etxebizitzen salmenta prezioa eta alokairuen prezioa mugatzeko, etxebizitza horiek gehien behar dituzten taldeentzako izango direla bermatzearren?

2. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, jendaurreko deialdiaren eta baremoaren bidezko esleipenen gizarteonura handiagoa eta gardentasuna bermatzeko, eta baita premia larrian diren horiek kasu bakoitzean hautatzeko baldintza egokiak erabiltzeko ere?

3. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak erosteko ahalmen txikia duten erabiltzeentzako laguntza publikoak gehitu, errentariek alokairua ordaintzeko dirulaguntza emendatu eta etxebizitzak zaharberritzeko pizgarriak handitzeko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

## Etxebizitza Planaren lurzoruaren azterketari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Etxebizitza Planaren lurzoruaren azterketari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Oinarrizko bi helburu lortu nahi ditu aipatu Planak lurzoruari dagokionean:

• Une bakoitzean etxebizitzak eraikitzeko jarduna normal garatzeko beste lur jartzea merkatuan, hala etxebizitza librean nola babestuan.

• Lurzoruaren eskaintzak arrazoizko prezioa izan dezala lortzea, etxebizitza babestuak behar diren tokiak eraiki ahal izateko.

Etxebizitza Planaren lurzoruaren azterketa dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Parlamentu honek urte bete dela onetsi zuen Etxebizitza Planak aurreikusi lurzoruaren azterketa idazteko? Bukatu al du, behin-behingoz bada ere, aipatu azterlana? Ondorioetako batzuk edo jarduteko proposamenak ezagutzen al dira?

2. Aipatu lurzoru-azterketa bukatu gabe baldin badago: noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak aipatu azterlana hasi, edo hala bada, bukatzea?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

# Iruñerrian lurzoruaren alorrean presakoak diren neurriei buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iruñerrian lurzoruaren alorrean presakoak diren neurriei buruz egindako galderaren bideragena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Oinarrizko bi helburu lortu nahi ditu aipatu Planak lurzoruari dagokionean:

• Une bakoitzean etxebizitzak eraikitzeko jarduna normal garatzeko beste lur jartzea merkatuan, hala etxebizitza librean nola babestuan.

• Lurzoruaren eskaintzak arrazoizko prezioa izan dezala lortzea, etxebizitza babestuak behar diren tokiak eraiki ahal izateko.

Iruñerrian beharrezko diren jarduketen premiazko sustapena azpimarratu du Etxebizitza Planak alor honetan.

Iruñerrian lurzoruaren alorrean presakoak diren neurriak direla-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak bizitzeko zabalguneak definitzeko Iruñerrian? Eta horiek programatu eta garatzeko?

2. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, lurzoru ez-urbanizagarriaren erreserbak ezartzeko balizko erabilera publikoa izan dezaten etorkizunean?

3. Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, etxebizitzak eraikitzeko gaitzat jo diren eskualdeetako garapen-planak sustatzeko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Iruñerrian lurzoru sailkatuetan eskuhartzeari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iruñerrian lurzoru sailkatuetan eskuhartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Oinarrizko bi helburu lortu nahi ditu aipatu Planak lurzoruari dagokionean:

• Une bakoitzean etxebizitzak eraikitzeko jarduna normal garatzeko beste lur jartzea merkatuan, hala etxebizitza librean nola babestuan.

• Lurzoruaren eskaintzak arrazoizko prezioa izan dezala lortzea, etxebizitza babestuak behar diren tokiak eraiki ahal izateko.

Lurzoru sailkatuetan eskuhartzeko aurreikusi ziren hirigintza-kudeaketa ekintzen barruan, beharrezkotzat jo zen halako neurri eta interes bat zuten lurzoru sailkatuaren boltsak martxan jartzea, etxebizitza babestuen erabilera berariaz jasotzeko, batzuetan desjabetze-sistema edo lehentasun publikoa duten beste batzuk erabiltzeraino.

Iruñerrian lurzoru sailkatuetan eskuhartzea dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Mendillorriko laugarren fasea deritzen jarduketetan, adskripzioan eta etxebizitza-kopuruan, batez ere?

2. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Ezkabako bidea-ubidea aldean, Iruña eta Antsoainen artean? Zenbat etxebizitza?

3. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Iruñeko Gipuzkoa hiribidean dagoen industri lurzoruan? Zenbat etxebizitza hartzeko moduan?

4. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Uharte-Iruñeko Ugarrandia aldean? Zenbat etxebizitza hartzeko moduan?

5. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Berriozarko E.R. Planean? Zenbat etxebizitza hartzeko moduan?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Lurzoruaren ondare publikoen garapenari eta kudeaketari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak lurzoruaren ondare publikoen garapenari eta kudeaketari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Oinarrizko bi helburu lortu nahi ditu aipatu Planak lurzoruari dagokionean: une bakoitzean etxebizitzak eraikitzeko jarduna normal garatzeko beste lur jartzea merkatuan, hala etxebizitza librean nola babestuan; eta lurzoruaren eskaintzak arrazoizko prezioa izan dezala lortzea, etxebizitza babestuak behar diren tokiak eraiki ahal izateko.

Lurzoruaren ondare publikoek berebiziko garrantzia dute lurzoruen espekulazioa eta ekipamenduen defizitak zuzendu eta borrokatzeko. Komunitateko Administrazioak bere gain hartu behar du, beste batzuekin batera, etxebizitza-politika garatzeko xede berezia izanen duten lurzoru ondare publikoak sortzen, eta lurzoruak erosi behar ditu horretarako, bere aurrekontuen pentzutan.

Lurzoruaren ondare publikoen garapena eta kudeaketa dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak informazio-sistema sortzeko, non 2000 biztanletik goitiko toki entitateetan diren lurzoru ondaren publikoak jasoko diren?

2. Informazio hori eskura al dago gaur egun? Noizko izanen da eskura?

3. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak 2000 biztanle baino gehiago dituzten udalei derrigorrezko aitorpen prozedura ezartzeko, urtero aitor ditzaten ondarean izandako aldaketak?

4. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak arauarekin bat ez etortzeak saihesteko, besterentzeen gaineko kontrol-sistema ezarriz?

5. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer azterlan burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Komunitateko Aurrekontu Orokorretik urteko gutxieneko kopuru finko bat ezartzeko lurzoruaren ondare publiko berekia eratzeko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Etxebizitza planak lurzoruaren arloan dituen helburuak lortzeko aurreikusi diren jarduketei buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Etxebizitza planak lurzoruaren arloan dituen helburuak lortzeko aurreikusi diren jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Oinarrizko bi helburu lortu nahi ditu aipatu Planak lurzoruari dagokionean: une bakoitzean etxebizitzak eraikitzeko jarduna normal garatzeko beste lur jartzea merkatuan, hala etxebizitza librean nola babestuan; lurzoruaren eskaintzak arrazoizko prezioa izan dezala lortzea, etxebizitza babestuak behar diren tokiak eraiki ahal izateko.

Lurzoruaren ondare publikoek berebiziko garrantzia dute lurzoruen espekulazioa eta ekipamenduen defizitak zuzendu eta borrokatzeko. Komunitateko Administrazioak bere gain hartu behar du, beste batzuekin batera, etxebizitza-politika garatzeko xede berezia izanen duten lurzoru ondare publikoak sortzen, eta lurzoruak erosi behar ditu horretarako, bere aurrekontuen pentzutan.

Etxebizitza planak lurzoruaren arloan dituen helburuak lortzeko aurreikusi diren jarduketak direla-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak lurzoru-lehiaketak, haien urteko definizioa eta deialdia hobetzeko?

2. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak etxebizitzen sustatzaileen erregistro publikoa sortzeko? Noizko aurreikusi du erabili ahal izanen dela?

3. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak lurzoruaren merkatua mugiarazteko, hirigintza-legediak aurreikusi dituen hertsapen-neurriak erabiliz?

4. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak toki entitateak gai hauetan sentiberatzeko eta hezitzeko?

5. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak lurzoruari eta etxebizitzen ekoizpen eta eskariari buruzko informazio-sistema eskuratzeko?

6. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, udalekin hitzartzeko poligonoak edo plangintza unitateak finkatzeko, eragile pribatuek partehartze handiagoa izan dezaten lurzoru eta etxebizitza arloetan?

7. Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak partzuergoak eratzeko, urbanizatzeko eta eraikitzeko unitateen garapen konkreturako? Zer entitaterekin? Zer kasutan?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendárizek, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera aurkeztu du:

Ingurugiro Ministerioko Ingurugiro Kalitate eta Ebaluaziorako Zuzendari Nagusiak hauxe bidali zion Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuari, apirilaren 22an: Nafarroako Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeari buruzko oroit-idazkia eta laburpena.

1131/88 Errege Dekretuak 30 laneguneko epea ezarri zuen aipatu Departamentuak Ingurugiro Ministerioari bidal ziezazkion egoki iritzitako iradokizunak Castejónen zentral termikoa jartzeko proiektuaren inguruan, ingurugiroaren aldetik, proiektuaren titularrak ingurugiro eraginaren azterketan kontuan izan behar zituen eduki zehatzei buruz, eta baita jarduteko beste aukera batzuei buruz ere.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

• Zenbat iradokizun bidali dizkio Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuak Ingurugiro Ministerioari aipatu proiektuari buruz? Noiz? Zein da horien edukia?

• Zer txosten tekniko burutu ditu Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuak gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuari buruz eta zein da aipatu txosten teknikoen edukia?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

---

## Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Ion Iñaki Erro Armendárizek, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera aurkeztu du:

Ingurugiro Ministerioko Ingurugiro Kalitate eta Ebaluaziorako Zuzendari Nagusiak hauxe bidali zion Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzari, apirilaren 22an: Nafarroako Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeari buruzko oroit-idazkia eta laburpena.

1131/88 Errege Dekretuak 30 laneguneko epea ezarri zuen Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Ingurugiro Ministerioari bidal ziezazkion egoki iritzitako iradokizunak Castejónen zentral termikoa jartzeko proiektuaren inguruan, ingurugiroaren aldetik, proiektuaren titularrak ingurugiro eraginaren azterketan kontuan izan behar zituen eduki zehatzei buruz, eta baita jarduteko beste aukera batzuei buruz ere.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

• Zenbat iradokizun bidali dizkio Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzak Ingurugiro Ministerioari aipatu proiektuari buruz? Noiz? Zein da horien edukia?

• Zer txosten tekniko burutu ditu Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzak gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuari buruz eta zein da aipatu txosten teknikoen edukia?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

---

# Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Ion Iñaki Erro Armendárizek, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera aurkeztu du:

Ingurugiro Ministerioko Ingurugiro Kalitate eta Ebaluaziorako Zuzendari Nagusiak hauxe bidali zion Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, apirilaren 22an: Nafarroako Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeari buruzko oroit-idazkia eta laburpena.

1131/88 Errege Dekretuak 30 laneguneko epea ezarri zuen Nafarroako Gobernuko aipatu Departamentuak Ingurugiro Ministerioari bidal ziezazkion egoki iritzitako iradokizunak Castejónen zentral termikoa jartzeko proiektuaren inguruan, ingurugiroaren aldetik, proiektuaren titularrak ingurugiro eraginaren azterketan kontuan izan behar zituen eduki zehatzei buruz, eta baita jarduteko beste aukera batzuei buruz ere.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

• Zenbat iradokizun bidali dizkio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Ingurugiro Ministerioari aipatu proiektuari buruz? Noiz? Zein da horien edukia?

• Zer txosten tekniko burutu ditu Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuari buruz eta zein da aipatu txosten teknikoen edukia?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

## Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendárizek, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera aurkeztu du:

Ingurugiro Ministerioko Ingurugiro Kalitate eta Ebaluaziorako Zuzendari Nagusiak hauxe bidali zion Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari, apirilaren 22an: Nafarroako Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeari buruzko oroit-idazkia eta laburpena.

1131/88 Errege Dekretuak 30 laneguneko epea ezarri zuen Nafarroako Gobernuko aipatu Departamentuak Ingurugiro Ministerioari bidal ziezazkion egoki iritzitako iradokizunak Castejónen zentral termikoa jartzeko proiektuaren inguruan, ingurugiroaren aldetik, proiektuaren titularrak ingurugiro eraginaren azterketan kontuan izan behar zituen eduki zehatzei buruz, eta baita jarduteko beste aukera batzuei buruz ere.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

• Zenbat iradokizun bidali dizkio Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Ingurugiro Ministerioari aipatu proiektuari buruz? Noiz? Zein da horien edukia?

• Zer txosten tekniko burutu ditu Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuari buruz eta zein da aipatu txosten teknikoen edukia?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

---

## Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Lurzoruaren eta Lurzati Antolamenduaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Lurzoruaren eta Lurzati Antolamenduaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Ion Iñaki Erro Armendárizek, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera aurkeztu du:

Ingurugiro Ministerioko Ingurugiro Kalitate eta Ebaluaziorako Zuzendari Nagusiak hauxe bidali zion Lurzoruaren eta Lurzati Antolamenduaren Institutuari, apirilaren 22an: Nafarroako Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeari buruzko oroit-idazkia eta laburpena.

1131/88 Errege Dekretuak 30 laneguneko epea ezarri zuen aipatu Institutuak Ingurugiro Ministerioari bidal ziezazkion egoki iritzitako iradokizunak Castejónen zentral termikoa jartzeko proiektuaren inguruan, ingurugiroaren aldetik, proiektuaren titularrak ingurugiro eraginaren azterketan kontuan izan behar zituen eduki zehatzei buruz, eta baita jarduteko beste aukera batzuei buruz ere.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

• Zenbat iradokizun bidali dizkio Lurzoruaren eta Lurzati Antolamenduaren Institutuak Ingurugiro Ministerioari aipatu proiektuari buruz? Noiz? Zein da horien edukia?

• Zer txosten tekniko burutu ditu Lurzoruaren eta Lurzati Antolamenduaren Institutuak gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuari buruz eta zein da aipatu txosten teknikoen edukia?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

---

## Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren bideratzea onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Ion Iñaki Erro Armendárizek, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera aurkeztu du:

Ingurugiro Ministerioko Ingurugiro Kalitate eta Ebaluaziorako Zuzendari Nagusiak hauxe bidali zion Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuari, apirilaren 22an: Nafarroako Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeari buruzko oroit-idazkia eta laburpena.

1131/88 Errege Dekretuak 30 laneguneko epea ezarri zuen aipatu Institutuak Ingurugiro Ministerioari bidal ziezazkion egoki iritzitako iradokizunak Castejónen zentral termikoa jartzeko proiektuaren inguruan, ingurugiroaren aldetik, proiektuaren titularrak ingurugiro eraginaren azterketan kontuan izan behar zituen eduki zehatzei buruz, eta baita jarduteko beste aukera batzuei buruz ere.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

• Zenbat iradokizun bidali dizkio Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak Ingurugiro Ministerioari aipatu proiektuari buruz? Noiz? Zein da horien edukia?

• Zer txosten tekniko burutu ditu Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuari buruz eta zein da aipatu txosten teknikoen edukia?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

# Ehiza debekualdiei buruzko foru agindua eta kontrapasako ehizari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ehiza debekualdiei buruzko foru agindua eta kontrapasako ehizari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Paralmentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Urtero, garai honetan, Ingurugiro Kontseilariak, ehiza debekualdiei buruzko foru agindua argitaratzen du, aurten, hain zuzen, 1997-1998 kanpainarakoa. Ehiza arloko Kontseilu Aholkuemaileak aztertu du jadanik aipatutako foru agindua eta igorri ere igorri dio Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseiluari.

Ehiza debekualdiei buruzko xedapen orokor horrek, Basa Fauna eta haren Habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko Foru Legearen 52. eta 63. artikuluen arabera (lege hori Parlamentu honek, UPN eta NDEren botuekin, aldatu egin zuen kontrapasako ehiza baimentzeko), espezie bakoitzari dagozkion ehiza debekualdiak jasotzen ditu, eta Nafarroan, ehiza, xedapen horien arabera egin behar da.

Aipatutako xedapen horrek, azken urte hauetan, baimendu eta arautu egiten ditu zenbait ugaztun ehizatzeko aldiak, hala nola ondokoak: erbia, untxia, azeria, basurdea, oreina, adarzabala, orkatza; eta baita ere zenbait hegazti ehizatzeko aldiak, hala nola hauetxek: antzara hankagorrizta, basahatea, zertzeta arrunta, eper gorria, galeperra, faisaia, kopetazuri arrunta, hegabera, oilagorra, istingor arrunta, pagausoa, haitz-usoa, txoloma, usapala, birigarro arrunta, birigarro txikia, durdula, garraztarroa, araba zozo beltza, araba zozo pikarta, mika, bele txikia, belea.

Ehiza debekualdiei buruzko foru agindua eta kontrapasako ehizari buruzko ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Noizko aurreikusi du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Kontseilariak ehiza debekualdiei buruzko aipatutako foru agindua argitaratzea? Zer erbenditasun ditu aurtengo kanpainarako proposamenak iazkoarekin? Arautzen al du foru agindu horrek kontrapasan ehizatzeko aldia eta sistema? Edozein modutan, zergatik sartu da edo ez da sartu?

2. Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Kontseilariak jakin al du Europako Batasunak jarrera aldaketarik izan duen kontrapasa ehiza sistemari buruz? Erantzuna ezezkoa bada, eskatu al du txostenik Departamentuak? Erantzuna baiezkoa bada, zer esan dute erakunde horiek gai horri buruz?

3. Kontrapasa baimentzeko Nafarroako Gobernuaren proposamenak, Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseiluak onetsitakoaren arabera, 250 posturentzako baimenak ematea ezartzen zuen. Egia al da, ehiztarien elkarteek esaten dutenaren arabera, Departamentuak postu tradizionalak aztertu ondoren milaren bat postu daudela? Edozein modutara, zer irizpide pentsatu du jarraitzea Ingurugiro Departamentuak aipatutako postuak baimentzeko?

4. Halaber, Nafarroako Gobernuak kontrapasako ehiza baimentzeko eginiko proposamenak muga ezartzen zuen, postu eta eguneko 6 usoren muga hain zuzen. Egia al da Ehiza arloko Kontseiluak, baimendutako ehiza-aldi guztirako onetsitako proposamena, postu eta eguneko 6 uso zela, batezbeste? Zenbat uso ehizatzea kontrapasan baimenduko du proposamen horrek? Nafarroako Gobernuak kontrapasan ehizatzeko baimendutako 2000k gainditzen al ditu? Zein da Ingurugiro Departamentuaren irizpidea?

Iruñean, 1998ko ekainaren 27an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Babestutako etxebizitza publikoen sustapenari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak babestutako etxebizitza publikoen sustapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentu honek behin agindu zuen Etxebizitza Plana egin zedila, neurri batzuk jasotzeko alokairuko etxebizitzen parkea eta etxebizitzen zaharberritzea bultzatzearren, eta etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren eskaintza handitzearren, toki entitateekin lankidetzan. Agindu hori betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak 1997ko ekainaren 24an onetsi zuen Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000).

Hauxe zen aipatu Planaren funtsezko helburuetako bat: “prezio mugatuko etxebizitzen eskaintza handitzea”.

Babestutako etxebizitza publikoen sustapena dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak araubide orokorreko babes publikoko etxebizitzen helburuak erdiestearren? Eta araubide berezikoak? Eta prezio mugatuko etxebizitza libreetan?

2.- Mota bakoitzeko zenbat jarduketa burutu da, Etxebizitza Plana onetsi zenetik?

3.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zuzeneko sustapenaren bidez, VINSAren bitartez, toki entitateekin edo bestela?

4.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak azalerako eskubidearen araubidean eraikitzeko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Burlatako kulturetxea finantzatzeari buruzko galdera

*LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Burlatako kulturetxea finantzatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Luis Gerardo López Eslava, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Komunikabideen arabera, Nafarroako Gobernuak jakitera eman zuen Vianako Printzea Erakundearen bidez, Burlatako kulturetxea finantzatzeko hitz eman zuela, ahalik eta dirulaguntzarik haundiena emanez.

Hori horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zer hitz eman dute, zehatz mehatz, Nafarroako Gobernuak eta Burlatako Udalak herri horretako kulturetxea finantzatzeko?

2.- Zer diru kopuru hitz eman du Nafarroako Gobernuak Burlatako Kulturetxea finantzatzen laguntzeko?

3.- Aurrekontuko zer kontusailetatik emanen da laguntza hori?

Iruñean, 1998ko ekainaren 26an

Foru Parlamentaria: Luis Gerardo López Eslava

---

## Nafarroan izan den atzerriko inbertsioaren jaitsierari buruzko galdera

*LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Nafarroan izan den atzerriko inbertsioaren jaitsierari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Luis Gerardo López Eslava, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Komunikabideek jakitera eman dute Nafarroa, 1997n, aurreko urtearekin alderatuz, atzerriko inbertsioak gehien jaitsi diren komunitatea dela.

Merkataritza Politika eta Kanpoko Inbertsioetarako Zuzendaritza Nagusiaren txostenaren arabera, Nafarroan, atzerriko inbertsioak % 83,8 jaitsi dira, 26.071 milioitik 1996an 4.204 milioira 1997an pasa baitira.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Aztertu al du Nafarraoko Gobernuak zergaitik jaitsi diren atzerriko inbertsioak Nafarroan?

2.- Abiarazi al du Nafarroako Gobernuak ekimenik jaitsiera hori geldiarazteko?

3.- Zer eragingarritasun izan dute Nafarroako Gobernuko kideek inbertsioak erakartzeko atzerrira egin dituzten bidaia ugariek?

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Foru Parlamentaria: Luis Gerardo López Eslava

## Erriberako urritu fisikoen elkarteak, Amimet-ek, eginiko salaketei buruzko galdera

*PEDRO ANTUÑANO ZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak Erriberako urritu fisikoen elkarteak, Amimet-ek, eginiko salaketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Pedro Antuñano Zárraga, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Erriberako urritu fisikoen elkarteak, Amimet-ek hain zuzen, bularreko minbiziaren prebentziorako erabiltzen den unitate ibiltarian sartzeko dauden zailtasunak salatu ditu. Hori horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Ba al du Nafarroako Gobernuak Amimet elkarteak eginiko kexen berri?

2.- Zer erantzun eman die elkarte horrek eginiko eskariei Nafarroako Gobernuak?

3.- Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak minosbaliotasun fisikoak dituztenei sarbidea errazteko bularreko minbiziaren prebentziorako erabiltzen den unitate ibiltarian?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 28an

Foru Parlamentaria: Pedro Antuñano Zárraga

---

## Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jarduerei dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailen betetze mailari buruzko galdera

*BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jarduerei dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailen betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuneko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurrekontu Legeak zenbait kontusail aurreikusten ditu kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jarduerei dirulaguntza emateko (304801-1 eta 30490-9).

Foru Parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

• Kontusailen betetze egoera.

• Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak jasotako diru kopuruak; diru kopuru horiek eta zein jardueretako eman diren zehaztea ere eskatzen da.

• Beste kontsumitzaileen elkarte batzuk jasotako diru kopuruak; diru kopuru horiek eta zein jardueretako eman diren zehaztea ere eskatzen da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

# Landa-eskualdeetarako pizgarrien mapa finkatzeari buruzko galdera

*BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak landa-eskualdeetarako pizgarrien mapa finkatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

2.000-2.006 aldirako egitura fondoak eraberritzeko prozesuak berarekin dakar helburuen barruan diren eskualdeak berriro aztertzea. Hurrengo hilabeteetan onetsiko ditu horiek Madrilgo Gobernuak, Estatuko Administrazioak bost irizpideren artean hiru aukera ditzakeelarik hautaketa egiteko irizpidetzat.

Beraz, handia da prozedura horrek ematen duen zuhurtziarakotasun maila, edo, gutxienez, aritzeko soka luzea.

Hala ere, bada horren aurretik eman beharreko beste pauso bat, pizgarrien mapa finkatzea, alegia, mapatik at geratzen diren lurraldeak helburuetatik kanpo ere geratzen direlako, besterik gabe.

Gai horrek Nafarroako landa-eskualdeetarako duen garrantzia dela-eta,

1. 2.000-2.006 aldirako indarrean izanen den pizgarrien mapa eman diezagutela eskatzen dugu.

2. Gaur egun indarrean den pizgarrien mapa eman diezagutela eskatzen dugu.

3. Berria oraindik erabakitzeke badago, haueexek eskatzen ditugu: jarraitu beharreko prozedura, erabiliko diren irizpideak, zer entitaten arituko den prozesuan eta baita egungo egoerari buruzko informazioa ere, eta erabakitako epeak.

4. Nafarroaren kasuan, hurrengo informazioa eskatzen dugu: Nafarroako Gobernuak zer urrats eman duen Nafarroako lurraldeak helburuen mapan sartzea lortzeko.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal


| HARPIDETZAREN PREZIOA<br>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA |
|---|---|
| Urte bat ........ 5.900 pta.<br>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ........ 135 » .<br>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ........ 170 » . | **NAFARROAKO PARLAMENTUA**<br>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»<br>Arrieta 12, 3<br>31002 IRUÑA |

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A. Artika (Nafarroa). Lege Gordailua: NA- 363-1995
Paper ekologiko birziklatua